

BIDEAK ETA ARDAUA

BIDEAK ETA PARKEAK

Oraintsu, Bilbo'ko autopistan, Santander alderakoan sartzean, oial bat egoan dindilizka: Menos autopistas, mas parques.

Konturatu nitzan umez betetako andra errukarrien baten eskea izango zala.

Alaz eta nire artean esan neban: Ondarroa'tik Durango'ra sarri joan bear ba leu, nai ta ondarrutar andrak baiño ume geiago euki, eskatuko leuke alako baten autopistaren bat.

ARDAUA BUSTIGARRI

Era askotako deiturak daukez gure bideak: bide txiñorak, baso-bideak, erreka-bideak, anda-bideak, pistak, bide barriak...

Ondarroa'tik Durango'rako onek ba dirudi anda-bidea dala, illa erabili bear izaten dan bidea, sekula konpondu ez eta ala ta be bertatik igaro bearrekua.

Edozetara be itaun au datorkit: Ez al da gaur ardaurik edaten gure errietan?

Jakiña da ardaua izaten zala len bideen oiñarri.

Bide bat egitea bururatu orduko, ardauari zerga, impostua. Beste gauzarik ez ba egoken lez. Esan bear:

Errioxako nai naparra
betor ardaua parra parra.

* .

URAK ANDI, BAIÑA...

Bizkaian, lengo gizaldian, bide barriak egin zira-nean, iñori ez yakon bururatu, esate baterako, arraiñari zerga ipinterik, nai eta bide orreik egiteko aitzaki batzun artean, Bermeo, Lekeitio eta Ondarroa'ren mesedean zirala esan, erri oneitatiek Castilla aldera bialtzen zan arrain pilla bizi-bizi eta gaitasun osoz bialdu bear zan premiña izentatuz.

Elantxobetar adiskideren batek esango eban onez-hero. Ta Elantxobe? Ez ete zan arrantzalien kai edo portu?

Ai ene! «Reges debellavit»... Lekeitio'k; «In primis Bermei»... Bermio'k; Ondarroa'k, sekula latian tutik jakin ez daben Ondarru onek, bale mutua bere ikurdian (eskudoan). Eta Elantxobe'k? Biotz aberatsa

baiña pobre gogo. Elantxobe milla probe, kanpaiak san eta esango.

Orduña'tik zearko bidea egin zanean kontu artzeko lira orretan esku artu nai ez, au da, ordaindu nai ez sbenak: Elantxobe, portuko mollak egiten zorrez beteta egoala ta ordukoz beintzat ezin eikeala.

PRAILLE MAUKA ESTUAK

Balmaseda, Larrea eta Markiña'ko prailleak be arri agertu ziran ordaindu nai ezta. Ardauari ipini yakon zerga emotera ukatu egin ziran eurak. Auzitara o ta galdu ondoren, oraindik be Markiña'ko prijoreak Lerga orren zati bat kentzeko eskatu eban, bear ba la ezetza lendik be ba egoala ta. Alaxe gertatu be, ;ure asaban erabagiz.

URKIOLA'KO BIDEA

Geroago, Urkiola'tik zearko bidea zabaltzean, barriri ardaua bideko autsak busti ta zorren estal;arritzat.

Ainbat Bizkai erri lepoa jasoten, ordaindu nai ez la agertu ziran, tabernarik ez euken aitzakiz. Ala tmoroto, Apata, Ereño, Gizaburu, Mendexa, Meñaka 'ta Nabarniz. Eta Markiña be aurka. Markiña'k ssaten eban Bilbo'ren mesederako baiño ez zan Orduña tldeko bidea egiteak zorpean laga zitula erri txiki ;uztiak eta ordukoa naiko zala, zor barririk artzen bili barik.

Arrigarriena Mañari'ren jokabidea zan. A be Urkiola'ko bidearen aurkoa. Zetan geratu kantu a:

Mañaritik asi ta Urkiolaraño
ez da ikusten besterik aldatz gora baiño?

Baiña kontuan euki: Lenengo asmoa Mañari'ren tlbolik bidea egitea zan. Eta Mañari'k erri barrutik iai eban, erriaren erdi-erditik. Mandazaiñen burdi larrak ate aurretan ikusi nai.

Gaur, erri guztiak, bideak bastertu eziñez dabiliz.

Lengo kale estuak zabaldu nai, aizea arnastu edo ;a eguzkia artu al izateko.

Osasunaren kaltezko dira gaur gure errietako aide ta kale asko. Arriskuz beteak: kei, usain, nabar-arlenkeri, zarata, pixu, dardara...

Giro guztiak eukiten dabez euren eskabideak. Gaur markeak nai dira. Betoz edo egin bediz ainbat ariñen. 3aiña autopisten mesedea aukeran lagata.

A. ZIBIKARAI